



Azterketa: landa-inguruneko gazteentzako politika publikoak

2021eko azaroa



4

Sarrera

5

Politika publikoen azterketa konparatiboa

6

Australia

Sarrera

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

12

Kanada

Sarrera

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

18

Txile

Sarrera

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

25

Uruguai

Sarrera

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

31

Europar Batasuna – NPBa

Sarrera

Nola laguntzen die EBk nekazari gazteei?

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

38

Gomendioak: Nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen etorkizunerako gakoak 2030

40

Landa-inguruneko gazteriaz solasean funtsezko zenbait eragilerekin (elkarrizketak)

Balorazio orokorrak

Ikusgaitasuna eta ospea

Errentagarritasuna

Finantzaketa

Trebakuntza

Erreleboaren alde

Lurraldea eta eragileen esku-hartzea


Gazteak eta teknologia berrien erabilera nekazaritzan

52

Ondorioak

Sarrera

Gazteei landa-ingurunean eusteko, haien garapena sustatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko zer tresna dauden jakin eta jakinaraztearren, **landa-ingurune**ko gazteentzako politika publikoen **gaine**ko azterketa bat agindu du MUNDUKO LANDAGUNEAK (FRM/WRF/ML).



Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Sailak 2021erako gazteen artean programak eta jarduerak garatzeko laguntza-deialditik jasotako finantzaketari esker egin da azterketa.

FNEB Euskadiko Familia Nekazaritzako Eskualde Batzordeak eta beste eragile batzuek erreferentzia gisa erabil dezaten egin da ikerketa, beste leku batzuetako eta EAEko landa-ingurune


Nazioarteko lau herrialdetan eta Europar garatutako politiken azterketa konparatibo bat du abiapuntu azterketak. Txile, Australia, Kanada, Uruguai eta EBko politikak aztertu dira. Bestalde, politika horien aplikazioan funtsezkoak izan diren eragileen balorazioak ere ageri dira. Kapituluaren amaieran, berriz, identifikatutako ekimen nagusien taula konparatiboa duzue, dagozkien ikuspegiak eta jaso dituzten laguntza-motak alboan dituztela.

Ondoren, *Euskadiko nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen etorkizuna* azterketaren ondorio nagusiak jaso dira, Euskadiko landa-ingurune


Hurrengo kapitulu

Azken atalean, azterlanaren ondorio orokorrak jaso dira, bai eta landa-eremuko gazteriari zuzendutako politika publikoetarako etorkizunerako gomendioak ere.

Politika publikoen azterketa konparatiboa



Australia



Sarrera

Testuingurua

Australiako 3,2 milioi herritar 14 eta 24 urte bitartekoak dira, herrialdeko biztanleriaren % 12. Gutxituz joan da ehuneko hori azken hamarkadetan (1971n, % 17 zen gazteen portzentajea). Hiri handietan eta hirien aldirietan bizi dira gazte horietatik % 75.

Sektoreari buruzko zenbait datu esanguratsu

230.000

pertsona

Australiako biztanleria aktiboaren % 2k dihardu lehen sektorean (230.000 lagun, gutxi-asko; horietatik, 35 urtetik beherakoak dira % 24).

49

batez besteko adina

Lehen sektoreko langileen batez besteko adina: 49 urte.

1038 \$

batez besteko soldata

Lehen sektoreko langileen batez besteko soldata: 1.038 dolar australiar.

38.541 M€

balio gordina

2018-19 epean, % 3 igo zen nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreen ekoizpen osoaren balio gordina, eta 38.451 milioi eurora iritsi.

Garia, oloa, garagarra...

ekoizpen nagusia

Produktu nagusiak: garia, oloa, garagarra, basartoa, barazkiak, frutak, olio-haziak, kotoia, azukrea, tabakoa eta bazka-landareak. Aipatzekoak dira haragiaren eta artilearen ekoizpena ere, eta eukalipto-basoetako zurarena.

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

Nekazari gazteei laguntzea
enpresa-ikuspegitik

A) Young Farmer Business Program - Nekazari Gazteentzako Negozio Programa



WEBGUNEAK

www.youngfarmer.farmtable.com.au

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Hegoaldeko Gales Berria estatuko gobernua, Lehen Sektoreko Industrien Saila.

HELBURUA

Trebakuntza eta informazioa eskaintzea nekazari eta arrantzale gazteei; Hegoaldeko Gales Berriko 18 eta 35 urte bitarteko nekazariak ahalduntzea, nekazaritza- eta arrantza-sektoreetan enpresa hobeak sor ditzaten.

IRAUPENA/INDARRALDIA

Urtero jartzen da martxan programa hori, eta 10 bat hilabete irauten du. 2021ean ere egin dira zenbait lantegi eta ekitaldi, baina programaren barruan banakako dirulaguntzak banatzeko azkeneko deialdia 2020an egin zen.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA

Programaren helburua: trebakuntza eskaintzea lehen sektoreko enpresari gazteei, eta enpresak kudeatzen eta administratzen laguntzea. Nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako enpresek

dituzten trebakuntza-premiak asetzea da xedea. Sektoreko enpresarien trebakuntzarako proiektuak finantzatzeko funtsak ere baditu ekimenak, eta prestakuntza-ikastaroak ordaintzeko banakako dirulaguntzak.

PROGRAMAREN ZENBAIT EKINTZA ZEHATZ

- Eskaintzen diren trebakuntza-lantegiak: Profit Ready, Bank Ready, Bank Savvy, Startup Sories.
- Dibulgazio-hitzaldiak, arrantza- eta nekazaritza-sektoreetako enpresei zuzenduak.
- Aholkularitza-zerbitzu pertsonalizatuak sektoreko gazte ekintzaileentzat.
- Zenbait baliabide digital programaren webgunean: podcastak, bloga, tresna-kita...

PROGRAMAREN ERAGINA

- Guztira, **146** ekitaldi egin dira (hitzaldiak eta lantegiak).
- **Banakako aholkularitza-saioak 466** izan dira, eta 5.297 nekazari gazteri eman zaie zerbitzua.
- Hobetu egin dira parte-hartzaileen **trebakuntzak eta gaitasunak**.
- Parte hartu zutenen % 71k diote hobetu egin dela negozioetarako dituzten gaitasunak.
- % 75ek, berriz, beste hau diote: eskuragarriago dituztela orain merkatuko zenbait produktu eta zerbitzu.
- % 84k, azkenik, zera diote: lotura estuagoa dutela gainerako nekazari gazteekin programan jardun ondoren.

B) Science and Innovation Awards for Young People in Agriculture, Fisheries and Forestry – Zientzia- eta berrikuntza-sariak nekazaritza, arrantza eta basozaintzaren sektoreetako gazteentzat

WEBGUNEA

<https://www.agriculture.gov.au/abares/conferences-events/scienceawards>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Australiako Gobernuak Nekazaritza, Ur eta Ingurumen Saila.

HELBURUA

Laguntzea nekazaritzaren sektoreko gazte berritzaileei, Australiako nekazaritzako enpresetan jasagarritasuna sustatu nahi duten proiektu originalak garatu nahi dituztenei.

IRAUPENA/INDARRALDIA

Aurreikusten da programa urtero gauzatzea, 2024ra arte. Zenbait kategoria eta sari daude, eta bakoitzak bere iraupena eta eskaerak egiteko epea ditu.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA

Honetarako da sari gisa ematen den dirulaguntza (14.000 eurorainokoa): gehien nabarmendu diren proiektuak hezuramitzeko, guztiak ere herrialde horretan nekazaritzako industria jasagarriak bultzatzen lagundu dezaketenak.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

Bi kategoria nagusitan banatzen dira sariak: Industriak, alde batetik, eta Nekazaritza, Lehortea eta Larrialdien Kudeaketa, bestetik. Industriaren kategoriak, berriz, **zenbait azpikategoria** ditu: Landa-ingurunekeo industria berriak eta emergenteak, Arrautzak, Haragi gorrien prozesamendua, Txerriak, Artilea, Kotoia, Biosegurtasuna, Arrantza eta akuikultura, Baso- eta zur-produktuak, Aleak, Haragia eta ganadua, Mahastizaintza eta enologia.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: eskatzailearen arabera (gehienez ere, 14.000 euro).

2021ean 21 proiektu saritu ziren; 2020an, 11, eta 2019an, 14. Guztira, 261 proiektu bultzatu dira programa martxan jarri zenetik.

C) Upskill and Invest Scholarship Young Farmers Scholarship – Nekazari gazteentzako Trebakuntza eta Inbertsio Beka

WEBGUNEAK

<https://business.vic.gov.au/grants-and-programs/young-farmers-scholarship-program>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Victoria estatuko gobernuak, Nekazaritza Saila.

IRAUPENA/INDARRALDIA

Urtero jartzen da martxan programa, 2015az geroztik.

HELBURUA

Victoria estatuko lehen sektorean lan egiten duten gazteen trebakuntza eta garapen profesionala sustatzea.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA

Urtero bekak eta/edo dirulaguntzak ematen zaizkie lehen sektorean lan egin edo egiten duten edo 35 urtetik beherako herritarrei, trebakuntza- eta gaitasun-jardueren gastuak ordaintzeko.

3.000 eurorainokoa dira laguntzak, eta funts osagarrietatik beste 3.000 ere ematen dira, kasu batzuetan, irabazleen trebakuntzarako.

Urtero 12-14 beka banatzen dira Victoria estatuko nekazari gazteen artean, eta 76 beka eman dira 2015az geroztik.

D) Young farmer and new entrant mentoring program 2022 – Nekazari gazteentzako eta partaide berrientzako tutoretza-programa (2022)

WEBGUNEAK

<https://agriculture.vic.gov.au/support-and-resources/networks/young-farmers/young-farmer-and-new-entrant-mentoring-program#h2-0>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Victoria estatuko gobernuak, Nekazaritza Saila. Australiako gobernuaren «Smarter, Safer Farms» ekimenak banatzen ditu programarako dirulaguntzak, zeinak 12,5 milioi eurokoak baitira.

IRAUPENA/INDARRALDIA

Hamabi hilabetekoa da tutoretza-epea.

HELBURUA

- Esperientzia duen nekazari batekin lankidetzan aritzeko aukera eskaintzea nekazari gazteei, nekazaritzako negozioak hobeto administratzeko gaitasunak gara ditzaten.
- Sare profesionalak eratzen irakastea ikastunei; aholkularitza- eta informazio-iturri fidagarriak erabiltzea, eta helburu komertzialak finkatzeko eta arriskuak ebaluatzeko gaitasuna garatzea.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA ETA XEHETASUNAK

Programa horretan, nekazaritzako enpresen aholkulari batekin elkarrekin harremanetan jartzen ditu nekazari gazte bat eta hezitzaile bat, gehienez ere urtebeterako. Epe horretan, elkarrekin lan egin behar dute biek, nekazari gazteak ezagutza eta esperientzia jaso ditzan, nekazaritzaz ez ezik jardueraren enpresa-eta kudeaketa-alorraz ere.

2021eko programan 12 ikastun jardun ziren, bakoitzak bere tutorea zuela. Aurreikuspenen arabera, 2022an 8 izango dira parte-hartzaileak.

E) Negozioei buruzko entrenamendu-kanpamentuak nekazari gazteentzat

WEBGUNEAK

<https://agriculture.vic.gov.au/support-and-resources/networks/young-farmers/young-farmer-business-bootcamps#h2-2>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Victoria estatuko gobernuak, Nekazaritza Saila.

IRAUPENA/INDARRALDIA

Gutxi-asko sei ordu irauten dute kanpamentu edo lantegiek. Aurten bi lantegi egin dira (ekainaren 17an eta 24an).


HELBURUA

Trebetasunez hornitzea nekazari gazteak, nekazaritzako negozioak kudeatzen laguntzeko.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA

Programaren helburua zera da, trebetasun praktikoak jasotzea nekazari gazteek enpresa eta arrisku komertzialak kudeatzeko, Victoria estatuko baserrietan egiten diren esperientzia praktikoen edo «entrenamendu-kanpamentuen» bitartez. Hauei dago zuzendua programa: behikia, ardikia, baratzezaintza eta abeltzaintza mistoa sektoreetako enpresetako ekoizleei.

Kanada



Sarrera

Testuingurua

2018an, 15-29 urte bitarteko 7 milioi gazte bizi ziren Kanadan, herrialde horretako biztanleriaren % 19,2. 2035erako aurreikuspenek diotenez, % 1 baino gehiago jaitsiko da ehunekoa.

% 2,4 herrialdeko BPGa

Esanguratsua da Kanadako nekazaritzaren sektorea, herrialde horretako ekonomia garatua den arren: BPGd-aren % 2,4 2020an, eta 280.000 enplegu. Nekazari horietatik, % 9,1 bakarrik da 25 urtetik beherakoa.

Garia, arroza, artoa eta zekalea

Nekazaritzako produktu nagusiak, berriz, hauek dira: **garia, arroza, artoa eta zekalea**. Nekazaritza ez ezik, abeltzaintza ere sektore esanguratsua da (behi-azienda, hegazti-azienda eta txerri-azienda).

Gari gogorraren munduko ekoizle nagusia

Kanada da **gari gogorraren munduko ekoizle nagusia**: herrialdeko nekazaritza-lurraren % 12,6 erabiltzen da zereal hori ekoizteko. Bestalde, munduko hirugarren txerriki-esportatzaile nagusia da Kanada.

22.500 M€ esportazioetan

Nekazaritzako produktuen esportazioak eta inportazioak 2020an: **22.500 milioi euro / 11.000 milioi euro**.

Landa-ingurune gazteei laguntzeko politikak

Nekazaritza-alorreko
gazteak sektorearen
erakargarritasunarekin,
enplegu-politikekin eta
gizarte-garapeneko
politikekin uztartzea

Kanadako gobernuaren Trebetasunen eta Gazteentzako Enpleguaren Estrategia (YESS)

ZER DA?

Enplegua sortzeko eta gizartea garatzeko bultzatzen du Kanadako gobernuak ekimen hori, zeinak lehen sektorerako berariazko ekintzak eta programak baititu.

2020an, gobernu federalak areagotu egin zuen estrategia horretarako ematen zuen diru-kopurua, pandemiak nekazaritzan eta oinarritzako lehengaien ekoizpenean eragindako kalteak nolabait leuntzearen.

Estrategia horretan sartzen dira gazteen enplegua sustatzeko zenbait programa, zehazki nekazaritzaren sektorerakoak.

Irakurgai dago agintari honi egindako elkarrizketa ere: Rick Fiarchuk, Kanadako gobernuko Nekazaritzako Ministerio Federaleko programa-zuzendaria.

A) Youth Employment and Skills Program – Gazteentzako Enplegu eta Trebakuntza Programa

WEBGUNEAK

<https://agriculture.canada.ca/en/agricultural-programs-and-services/youth-employment-and-skills-program>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Kanadako gobernu federala, Agriculture and Agri-Food Canada (AAFC) – Kanadako Nekazaritza eta Nekazaritzako Elikagaien Saila.

Nekazarien eta gazteen artean jakintza praktikoak zuzenean transmititzeko apustua egitea, baserrietan praktikak eta akonpainamendua sustatuz, eta sektoreko enpresei gazteak kontratatzen eta prestatzen lagunduz

HELBURUA

Laguntzea gazte langabeei enplegua eskaintzen dieten nekazaritzako proiektuei.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Gobernu federalaren Agriculture and Agri-Food Canada (AAFC) sailak bultzatzen du programa, zeinak 14 milioi euroko laguntza-funts bat sortu baitu gazteei nekazaritzako lanetan enplegua ematen dieten lehen sektoreko enpresentzat.

Nekazaritzarekin lotura duten enpresek eta erakundeek jaso ditzakete laguntzak, hots, gazte langabeei lanerako aukera eman diezaieketen nekazariak, elikagai-prozesatzaileak eta gobernuz kanpoko erakundeak (GKE).

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

- Soldataren % 50eko laguntza ematen da, gehienez ere (10.000 euro urteko eta pertsonako).
- Kontratatutako langilearen soldataren % 80 ordaintzen dute enpresei ematen zaizkien laguntzek (10.000 euro, gehienez ere).
- Beste 3.500 euroko laguntza osagarri bat ere ematen zaie oztopo jakin batzuk dituzten enplegatzaileei: seme-alaben zaintzaz arduratzea, oso leku urrunetan bizitzea, errenta baxuak eskuratzea, desgaitasun mental edo fisikoren bat pairatzea...
- Gaztea izan behar da (15-30 urte bitarte) programa horren bitartez kontratatua izateko.
- Enpresen profila:
 - Laboreak ereiteko eta uztak biltzeko langileak kontratatu nahi dituzten nekazariak.
 - Eskulanaren beharra duten nekazaritzako enpresak (berotegiak, baratzeak, mahastiak, barazki-ekoizleak...).
 - Nekazaritzako produktuak eta zerbitzuak hornitzen dituzten enpresa txikiak.
 - Eskulana behar duten elikagaien prozesatzaileak.

PROGRAMAREN ESTATISTIKAK

2020ko apiriletik 2021eko martxora, 9,2 milioi dolar erabili zituen gobernu federalak industriari laguntzeko 15-30 urte bitarteko gazteak erakartzen. Izan ere, COVID-19aren pandemiak aurrera egin ahala, geroz eta urriagoa zen sektoreko langile-kopurua. Aipatutako tarte horretan, talde hauetako 15-30 urte bitarteko mila bat gazteri lagundu zien programak: herri indigenak (% 12); desgaitasunen bat dutenak (% 3), talde minoritarioak (% 6), emakumeak (% 46). 2021-2022 eperako, berriz, 21,4 milioi onartu dira, nekazaritzako sektorean 2.000 bat enplegu finantzatzeko.

FINANTZATUTAKO ZENBAIT PROIEKTU

- Laborantza organikoarekiko grina lantzen Ferme Lève-tôtten: <https://agriculture.canada.ca/en/agri-info/good-news-grows/cultivating-passion-organic-farming-ferme-leve-tot>
- Teknologia eta gazteria baserrian: Albertako nekazaritza garai berrietara egokitzen: <https://agriculture.canada.ca/en/agri-info/good-news-grows/technology-and-youth-farm-bringing-albertas-agriculture-new-age>

B) AgriDiversity Program – Agroaniztasuna programa

WEBGUNEAK

<https://agriculture.canada.ca/en/agricultural-programs-and-services/agridiversity-program>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Kanadako gobernu federala, Agriculture and Agri-Food Canada (AAFC) – Kanadako Nekazaritza eta Nekazaritzako Elikagaien Saila.

IRAUPENA/INDARRALDIA

2018ko otsailetik dago zabalik eskaerak egiteko epea, eta 2023ko apirilean amaitzen da programa.

HELBURUA

Nekazaritzaren sektorea sendotzea eta Kanadako nekazaritzan ehuneko eskasa duten taldeei laguntzea (gazteak, emakumeak, herri indigenak eta desgaituak) sektorean bete-betean jarduten, jasaten dituzten arazo eta oztopo nagusiei aurre egiteko baliabideak eskainiz.

DESKRIBAPENA

Agriculture and Agri-Food Canadak kudeatzen du AgriDiversity Programa, zeinak dirulaguntzak ematen baitizkie Kanadako nekazaritzaren sektorea sustatzeko jarduerak egiten dituzten erakundeei. Talde jakin batzuen potentziala aprobetxatzen duten erakundeek (gazteena, besteak beste) jasotzen dituzte laguntzak. Lehen sektorean ibilbide profesionala garatzearen abantailak sustatzeko ematen du dirua programak, eta hobetzeko herritarrek nekazaritzaz eta sektore garrantzi ekonomikoaz duten iritzia.

Irabazi-asmorik gabeko erakunde hauen jarduerak finantzatzen ditu proiektuak:

- Gazteen gaitasun enpresariala eta trebetasun komertziala garatzen laguntzen dutenenak.
- Gazteei eta beste talde batzuei nekazaritzan hobeto jarduten laguntzen dieten erakundeenak, barne direla sektoreko aukera profesionaleri buruzko kontzientziazioa eta trebakuntza

eskaintzen dutenenak.

LAGUNTZAREN IRISMENA

- Urtean 140.000 euroko laguntza jaso daiteke, gehienera ere.
- Proiektuaren kostuak, berriz, Agriculture and Agri-Food Canada erakundeak eta laguntzaren hartzaileak hartzen dituzte beren gain. Laguntzak ez du gaingitu behar diruz lagungarri diren kostuen % 50.

2018-2021 epean, nekazaritzaren sektorean eragiketarako egiten eta hedatzen jardun diren gazteen biko erakunderi eman zaie laguntza.

Agriculture in the Classroom Canada (<https://aitc-canada.ca/en-ca/>). Bi proiektu:

- «Nekazaritza eta elikadura Sektorerako gazteen lidergorako gaitasunak garatzea»: Helburua: Kanadako nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorearekiko konfiantza sortzea eta kontzientziatzea.
- «Nekazaritza -eta elikadura- sektorerako gazteen lidergorako gaitasunak garatzea». Helburua: egungo ikasketa-planaren irakaskuntza-tresnak areagotzea, beste batzuk garatzea, eta nekazaritzan zein elikagaien sektorean jarduteko aukera eskaintzea Kanadako irakasleei eta ikasleei. Proiektu horri esker, nabarmen haziko da ikasleen nekazaritzako partaidetza eta sektorearekiko kontzientziatzea, eta nekazaritzaren etorkizuneko buruzagien, sektoreko langileen eta kontsumitzaile informatuen inspirazio-iturri izango dira, herritarren artean konfiantza sortzen duten bitartean.

Canadian Young Speakers for Agriculture Inc.: Hona proiektu horren helburua: herrialdeko nekazaritza lehiakorrak eta nekazaritzako elikagaien industriak behar dituzten komunikazio-gaitasunak eta lanerako indarra garatzea Kanadako gazteen artean.

C) The Canadian Agricultural Youth Council – Kanadako Nekazari Gazteen Kontseilua



WEBGUNEAK

<https://agriculture.canada.ca/en/youth-agriculture/canadian-agricultural-youth-council>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Kanadako gobernu federala, Kanadako Nekazaritza eta Nekazaritzako Elikagaien Saila.

IRAUPENA/INDARRALDIA

2020an sortu zuten organo hori, eta urte bereko uztailean eman zituzten ezagutzera Kontseiluko kideen izenak.

HELBURUA

Aholkularitza eskaintzea, eta elikadurari dagozkion desfioei eta aukerei buruzko etengabeko elkarrizketa sustatzea, bai eta nekazaritzako eta nekazaritzaren elikagaien sektoreetako politikak eta programak ere.

DESKRIBAPENA

Kanadako nekazaritzako elikagaien sektoreko alor ugaritako 25 gaztek osatzen dute aholkularitza-organo hori. Lehen sektoreko desfioei eta aukerei buruzko etengabeko elkarrizketak bultzatzen ditu Kontseiluak; informazioa eta jardunbide egokiak partekatzen ditu, eta programen eta politiken gaineko aholkularitza eskaintzen.

D) Agriculture in Classrooms – Nekazaritza ikasgeletan

WEBGUNEA

<https://aitc.mb.ca/>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Manitoba estatuko gobernua; Kanadako gobernu federalaren funtsak

IRAUPENA/INDARRALDIA

1988an hasi zen proiektua.

HELBURUA

Alfabetizazioa sustatzea nekazarien artean, eta sektore horren garrantziaz kontzientziazatzea herritarrek.

DESKRIBAPENA

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Kanadako gobernu federaletik eta Manitobako probintziako gobernutik jasotzen ditu dirulaguntzak. Hezkuntza-baliabideak eskaintzen ditu, maila ugaritan, eta herritarrei nekazaritza beste era batera ikusarazten saiatzen da. Zenbait programa, jarduera eta baliabide ditu erakundeak irakasleek eta ikasleek gehiago jakin dezaten nekazaritzaz eta jarduera horrek gizartearentzat duen garrantziaz. Erakundearen webguneak, berriz, informazio interesgarria ematen du bekei eta inguruko trebakuntza-aukerei zein baliabideei buruz.

EMAITZAK/INPAKTUAK

- Zenbait maila eta adinetako **32.924 ikaslek** hartu dute parte «Agriculture in the Classrooms» programako ikastaro edo trebakuntza-saioren batean.
- Plataformako webgunetik, berriz, **7.109 hezkuntza-eduki**, ikastaro eta trebakuntza-fitxategi **deskargatu dira**.
- Kanadako **225 eskolatan** erabili dute webgunea.
- **519 irakaslek** erabili dituzte plataformako hezkuntza-baliabideak.

Txile



Sarrera

Testuingurua

Txileko biztanleriaren % 24,3 dira 15 eta 24 urte bitarteko gazteak, 3.670.000 herritarretik gora. Landa-inguruneko gazteak, berriz, biztanleriaren % 3 besterik ez dira.

% 3

herrialdeko BPGa

Txileko BPGd-aren % 3 dagokio nekazaritzari, zeina herrialdearen erdialdean eta hegoaldean kokatzen baita gehienbat.

Asia

inportatzaile nagusia

Txileko esportazioen zati handi bat lehen sektoreko produktuak dira. Azken urteotan, Europara eta, batez ere, Asiara asko esportatzen du herrialde horrek: Txinak, esate baterako, Txileko gerezien esportazioaren % 80 jaso zuen 2018an.

3

produktu nagusi

Hauek dira nekazaritzako produktu nagusiak eta gehien ekoizten direnak: zerealak (oloa, artoa eta garia), frutak (mertxikak, sagarrak, mahatsa eta udareak) eta barazkiak (baratzuriak, tipulak, zainzuriak eta babak).

«Frutaren sektoreak 6.500 euroko esportazioak egiten ditu, eta bost milioi tona fruta fresko ematen duten 350.000 hektarea ditu. Mundu osoko 140 bat herrialdeetara esportatzen da fruta hori; bestalde, 750.000 bat lanpostu ditu Txileko frutaren sektoreak».

Txileko Nekazaritza Ministerioa

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

Finantza-laguntza, herritarren parte-hartzea eta gaikuntza

A) Txileko Landa-inguruneko Gazteentzako Kredituak Finantzatzeko Programa («Nekazari Gazte eta Ekintzaile Programa»)

WEBGUNEAK

www.indap.gob.cl/servicios-indap/plataforma-de-servicios/financiamiento

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Nekazaritza eta Abeltzaintza Garatzeko Institutua (INDAP), Txileko Nekazaritza Ministerioa.

HELBURUA

Herrialdeko gazteek jarduera ekonomiko eta produktiboetarako dituzten lan-, kapital- eta inbertsio-beharrak finantzatzea.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Herrialdeko landa-inguruneko gazteentzako finantzaketa-kreditua da, itzuli beharrekoa, haien enpresen eta erakundearen kapital-beharrak finantzatzeko sortua.

Kredituaren hartzaile diren enpresek «landa-inguruneko gaztearen garapen ekonomikorako proiektu egokia» izan behar dute. Kreditua itzultzeko epeak, berriz, hamar urtera artekoak izango dira.

B) Landa-inguruneko gazteen mahaia

WEBGUNEAK

<https://www.indap.gob.cl/j%C3%B3venes-y-mujeres-rurales>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Nekazaritza eta Abeltzaintza Garatzeko Institutua (INDAP), Txileko Nekazaritza Ministerioa.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Herritarren partaidetzarako organoak dira, Txileko landa-inguruneko nekazari gazteentzako topaguneak edo foroak.

Gazteen premiak eta kezkak jasotzen dira organo horietan, ekintza bateratuak prestatu eta proposatzeko.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

Egun, 57 eskualde- eta toki-mahai daude, 660 bat gazte biltzen dituztenak. Nazio-mailako mahaia ere antolatu dira, eta Txileko 16 eskualdeetako nekazari gazteek hartu dute parte; halaber, bilerak egin dira Nekazaritza Ministerioko ordezkariekin.

INDAP Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren Garapenerako Institutuaren ekimen sendoa da programa, herrialdeko eskualde guztietako ingurune landatarrenetako gazteak biltzeko eta haien ahotsa entzuteko sortua.

C) Landa Inguruneko Mintegia: Beka Programa



WEBGUNEAK

<https://www.fucoa.cl/productos/beca-semillero-rural/>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Landa Ingurunearen Komunikazio, Trebakuntza eta Kultura Fundazioa (FUCOA), Nekazaritza Ministerioaren mendekoa, Hezkuntza Ministerioa laguntzaile dela.

IRAUPENA/INDARRALDIA

2013tik dago indarrean programa. 2020an eta 2021ean bertan behera utzi da. 2022rako, aldiz, berriro martxan jartzea aurreikusten da. Bost hilabete iraute du ekitaldi bakoitzak.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

Txileko nekazaritzako institutu teknikoetako irakaskuntza ertaineko azken urteko ikasleentzako trebakuntza-programa, Zeelanda Berriko lehen sektoreko enpresetan zenbait espezialitatetako praktikak egin ditzaten antolatua.

Hiru espezialitate ditu programak: frutagintza, esnegintza eta nekazaritza, eta abeltzaintza intentsiboa (ardiak eta behiak). Parte-hartzaileen ezagutzak eta trebetasun teknikoak sakonago jorratzea da helburuetako bat. Bost eta zortzi hilabete bitarte ematen dituzte ikasleek Zeelanda Berriko lehen sektoreko enpresetan lanean. Bestalde, ikasleen ingeles-maila hobetzeko ere lagungarri da programa.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

- Orain arte, irakaskuntza ertaineko azken ikasturteko **214 ikaslek** hartu dute parte programetan.
- **2019ko ekitaldian** (egin den azkenekoan), **32 lagunentzako** tokia egon zen: 19 frutagintzarako, 7 esnegintzarako eta sei nekazaritzarako.
- Egonaldi praktikoa hasi aurretik, hizkuntzak ikasteko onlineko plataforma batean aritzeko aukera eskaintzen zaie ikasleei, ingeles-maila hobetu dezaten.

D) Online trebatzeko Txileko nekazaritza-eskola



WEBGUNEAK

<https://www.chileagricola.cl/>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Landa Ingurunearen Komunikazio, Trebakuntza eta Kultura Fundazioa (FUCOA), Txileko Nekazaritza Ministerioaren mendekoa. Nekazaritza Ministerioak garatzen du hezkuntza-edukia.

IRAUPENA/INDARRALDIA

2020tik dago martxan.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

FUCOAK garatutako web-plataforma bat da, material didaktiko ugari eskaintzen duena nekazaritzaren alorreko gaiei buruz: izurriteen kontrola, uraren erabilera, elikagaien segurtasuna eta abar.

Askotariko trebakuntza-ikastaroak eskaintzen ditu webguneak (gaikako fitxak, lege aipagarrienak, ikus-entzunezko edukiak...), gai askori buruzkoak, betiere nekazaritzaren sektoreko langileei zuzenduak, baina ez gazteei soilik.

EMAITZAK/INPAKTUAK

Plataforma martxan jarri aurretik (2020ko uztaila) **1.900 erabiltzaile**

zituen erregistratuta webguneak, eta 87.000 bisitatik gora jaso zituen orriak.

Martxan jarri eta berehala, berriz, **250 bat hezkuntza-eduki** eskura zituzten erabiltzaileek (bideoak, eskuliburuak, fitxak...), eta **2.000 bat** eskuliburu eta hezkuntza-eduki deskargatuak zituzten.

Gai askori buruzkoak izan ziren bisitak: **ura, nekazaritza jasangarria, kudeaketa komertziala, finantzaketa, izurriteen kontrola...**



Instituzionaltasuna,
nekazaritza-erakundeekin
batera lan egitea
partaidetza- eta artikulazio-
espazioen bidez, aurrekontu
bat eta inplikaturiko
langileak. Horiek guztiak
funtsezkoak dira landa-
eremuko gazteei bideraturiko
politikek arrakasta izan
dezaten

ELKARRIZKETA

Jarraian duzue agintari hauei egindako elkarrizketa:

- Andrea Riquelme – Punto Focal Juventud Chile, Nekazaritza eta Abeltzaintza Garatzeko Institutuko arduradun nazionala (INDAP) - Nekazaritza Ministerioa.
- Juan Guido Vidal Acuña – INDAP antolakuntza-unitatea, RELACen koordinatzailea izana.

Badago Gazteriaren Institutu Nazional bat ere, Gizarte Garapenerako Ministerioari atxikia. Institutu hori familia-nekazaritzaren aldera bideratzen saiatu ziren; izan ere, hiriko gazteriari zegoen zuzendua, landa-ingurunekeo gaiak Nekazaritza Ministerioari soilik zegozkiola uste baitzen.

Identifikatutako arazoak

- «Gazteek utzi egiten diote gazte izateari». Zer da gaztea izatea? Eta, batez ere, zer da landa-ingurunean gaztea izatea? Gazteen iritziz, egoera berrietara egokitzekeo eta arazoei aurre egiteko ahalmen handia behar lukete izan administrazioek, baina erakundeek epeak eta ikuspegiak ez datoz beti bat irizpide

horrekin. Kementsuak dira gazteak, ez diete beldurrik aldaketei, eta erosotasun-eremutik ateratzen dute jendea. Erakunde publikoek, berriz, gazteen premiei erantzuteko gai izan behar dute.

- Administrazio-aldaketak: ziurgabetasunaren mende daude garatzen diren programak, aldaketa horiek direla eta (programak bertan behera uztea, lan-ardatzak aldatzea eta abar).
- Zalantzan jartzen da erakundeek landa-inguruneko gazteriaren arazoak ikusgai jartzeko interesik eta ardurarik ba ote duten.

Elkarrizketaren emaitzak

Balorazio positiboa:

- Azken urteotan, erakunde publikoak gaiaz arduratzen hasi direla ikusi da; besteak beste, Gazteen Unitatea sortu dute.
- Finantzaketari eutsi egin zaio, zenbait programaren bidez: «Nekazari Gazte eta Ekintzaile Programa» (lankidetzaprograma, dagoeneko 12 kooperatiba partaide dituen).
- Trebakuntza-jarduerak sustatzen ditu, gazteen eskariaren arabera. Gazte askok hartzen dute parte. Aurten, eskari handia izan du agroekologiak. Lidergoari eta estrategia digitalari buruzko ikastaroak ere eskaintzen dira.
- Ongi funtzionatzen dute partaidetza- eta antolakuntza-guneek; besteak beste, Landa-inguruneko Gazteen Mahaiek. Mekanismo horiek berenganatu egiten dituzte gazteek.
- 2017/2018tik, landa-inguruneko gazteen komunitate birtual bat dago Facebooken. Hor jarduten dira INDAPen erabiltzaileak eta beste sektore eta herrialde batzuetakoak. Gazteek esperientziak partekatzen dituzte komunitate horretan, euren produktuak merkaturatzen, elkarri aholku ematen... Oso plataforma bizia da, gazteen komunikazio-ohituretara egokitua.

Zein izan ziren (eta dira) arrakastaren gakoak?: Gogoan izan duela gutxi jarri zirela indarrean aplikatzen ari diren politikak eta neurriak; beraz, zaila da arrazoi zehatz batzuk aipatzea. Dena dela, elementuren batzuk nabarmentzen dira. Arrazoi bera dela medio, zaila da neurrien inpaktua neurtzea ere.

- Eragileen partaidetza eta erakundeetako lankidetzak: programak aplikatzeko, funtsezkoa da gazteriaren arloko erakundeetan partaidetza sustatzea. Prozesu geldoak dira; eragileak ondo ezagutu behar dira, eta haiekiko harremana landu. Oso ongi funtzionatzen dute Landa-inguruneko Gazteen Mahaiek, zeinek gazteen eskaeren eta beharren berri ematen baitiete erakundeei. Erakundeek eta gazteen arteko topaguneak dira.

Oso proposamen interesgarriak sortzen dira mahaietan, eta elkarlanean jarduten dira.

- Aurrekontua eta erakundeen esku-hartzea: ezinbestekoak neurriak martxan jartzeko. Horiek gabe ezin da aurrera egin.
- Pertsona bat behar da programa edo neurria bultzatzeko; ezinbestekoa da norbaitek gazteak ezagutzea eta haien sustatzaile jardutea.

Azpimarratzekoa da laborantza-erreformari eta gazteriari buruz INDAPek egindako ikerketa: Laborantza-erreformaren bilobak: Txileko landa-inguruneko gazteen enplegua, errealitatea eta ametsak. Ikusi hemen: <http://www.indap.gob.cl/docs/default-source/default-document-library/los-nietos-de-la-reforma-agraria.pdf?sfvrsn=0>.

Uruguai



Sarrera

Testuingurua

60 urtetik gora ditu Uruguaiako biztanleen % 58k. Aldiz, biztanleriaren % 15 baino ez dira 15-25 urte bitarteko gazteak. Bestalde, herritarren % 7 bakarrik bizi dira landa-ingurunean.

% 82,6
nekazaritza azalera

Mundu osoko estatuetatik, Uruguai da nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako azalera handiena duena: herrialde osoaren % 82,6.

140.000
langile

2016an, **140.000 langile** baino gehiago ari ziren lehen sektorean, hots herrialdeko biztanleria aktiboaren % 7,8.

esportazio osoaren
% 90

Uruguaiako esportazio guztien % 90 nekazaritzako produktuak dira, edo nekazaritzako produktu eraldatuak. BPGd-aren % 6,3 zen lehen sektorearen pisua 2016an.

Garia, soja, garagarra, artoa...

Produktu hauek ekoizten dira batik bat: **garia, soja, garagarra, artoa, arroza, koltza...** Abeltzaintzak ere pisu handia du sektorean: 2016an, abeltzaintzako 40.000 bat ustiategi zeuden.

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

Landa-eremuko gazteen hezkuntza eta parte-hartzea sustatzea, landa-garapenari laguntzeko

A) «Bertakoak gara» programa

WEBGUNEAK

www.inju.gub.uy

ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioak sustatzen du, Landa-ingurunearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren eta Gizarte Garapenerako Ministerioko Gazteriaren Institutu Nazionalaren bitartez.

IRAUPENA/INDARRALDIA

2012an sortu zen ekimena, eta harrezkeroztik 6 urtez egin da.

HELBURUA

Landa-ingurunearen garapenerako prozesuetan gazteen partaidetza sustatzea; landa-inguruneko eta/edo nekazaritzan zein abeltzaintzan diharduten gazteen gizarteratze-prozesuak bultzatzea; landa-ingurunearekin lotura duten proiektuak sortzen laguntzea.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Itzuli behar ez den dirulaguntzak ematen dira, gazte-taldeen proposamenak aurkeztu eta martxan jar ditzaten, guztiak ere interesatzen zaizkien gaiei dagozkienak. Zenbait arlo jorratzen dituzte proposamenek; besteak beste, ekoizpena, kultura, kirola, trebakuntza eta azpiegiturak.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

- Hauek dira programaren hartzaile nagusiak: **14 eta 29 urte bitarteko gazteak**, landa-ingurunean bizi direnak eta/edo nekazaritzarekin zein abeltzaintzarekin zuzeneko lotura dutenak. **Gehienez ere 5 lagunekoak izan behar dute finantzaketa jasotzen duten taldeek.**
- Ekitaldi bakoitzean **50 ekimen edo proiektu** finantzatzen dira; beraz, nekazaritzan eta abeltzaintzan diharduten gazteen **300 bat proiektu** finantzatu dira dagoeneko.
- **Prestazioen irismena:** gazte-talde bakoitzak **2.000 eurorainoko** diru-kopuruak jaso ditzake. Horrez gain, erakunde antolatzaileetako teknikariek **laguntza teknikoa** ematen dute proiektuen zenbait fasetan.

B) «Gazteen lurra» programa

WEBGUNEAK

<https://www.gub.uy/ministerio-desarrollo-social/comunicacion/convocatorias/tierra-jovenes>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Kolonizaziorako Institutu Nazionala, Landa-ingurunearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusia (Abeltzaintza eta Arrantza Ministerioa), Gazteriaren Institutu Nazionala (Gizarte Garapenerako Ministerioa).

IRAUPENA/INDARRALDIA

2019tik dago martxan ekimena.

HELBURUA

Baldintza egokiak sortzea gazteek landa-ingurunean bizi eta ekoizpen-proiektuak garatzeko aukera izan dezaten; gazteen emantzipaziorako bideak eraikitzea; politika publikoak diseinatzeko ezagutzak eta intsumoak dakartzaten proiektuak bultzatzea.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Programa pilotua, gazte-taldeek landa-ingurunean ekoizpen-proiektu propioak sortzeko tresnak izan ditzaten proposamen gisa sortua.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

Prestazio hauek eskaintzen ditu programak:

- Lursail bat, jarduera garatzeko.
- Jarduerarako behar diren baliabide produktiboak (kapitalizazioa eta inbertsioak) eta laguntza teknikoa.

Biztanleriaren sektore honi dago zuzendua proiektua: **18 eta 29 urte bitarteko gazteei**, zeinek ekimenak aurkeztu behar baitituzte

nekazaritzako ekoizpenaren alorrerako. Bereziki balioetsiko dira agroekologia bultzatzen duten ekimenak.

Uruguako hiru eskualde hauetan bakarrik aplikatu zen esperientzia pilotua: Salto, Lavalleja eta Canelones.

C) Landa-inguruneko lizeoak eta ikastetxe integratuak

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Bigarren Hezkuntzako Kontseilua (CES), Hezkuntza Publikoko Administrazio Nazionala, Uruguako Gobernu.

IRAUPENA/INDARRALDIA

1996an jarri ziren martxan Ikastetxe Integratuak; Landa-inguruneko Lizeoak, berriz, 1987an.

HELBURUA

Bigarren mailako ikasketak egiteko aukera eskaintzea landa-inguruneko ikasleei, beren eskualdean ikastetxerik ez zegoelako ikasten jarraitu ezin zutenei.

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

1980-90eko hamarkadetan sortu ziren ikastetxe horiek, landa-ingurunetan ikasten jarraitzeko ikastetxerik ez zuten gazteei aukera bat eskaintzearen.

EMAITZAK/INPAKTUAK

Gaur egun, 3.700 bat ikasle daude matrikulatuta landa-inguruneko 19 lizeotan eta bost ikastetxe integratutan.

D) Kandela programa

WEBGUNEAK

<https://www.gub.uy/ministerio-ganaderia-agricultura-pesca/comunicacion/campanas/bujia-encendemos-tus-ideas>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Landa-ingurunearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusia (Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa).

IRAUPENA/INDARRALDIA

2019an jarri zen martxan programa.

HELBURUA

Bultzatzea landa-inguruneko gazteek eta/edo abeltzaintza eta nekazaritzako prozesuetan dihardutenek esku har dezaten ekoizpen- zein kudeaketa-teknologia berrietan, nekazaritza zein abeltzaintzako zerbitzu berrien garapenean eta nekazarien elkarteetan sorkuntzan.

Sektore-arteko eta erakunde-arteko ikuspegia sustatzea eta estereotipoekin haustea, nekazaritzako gazteen espezifikotasuna ulertzeko eta gazte horien parte-hartze aktiboa sustatzeko; izan ere, horiek funtsezkoak dira landa-eremuko gazteen politika publikoak bideratzeko

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Itzuli behar ez den dirulaguntza ematen du programak, honetarako: ekoizpen-jarduerak martxan jartzeko proiektuen kostuak partez ordaintzeko; jada martxan dauden abeltzaintza eta nekazaritzako proiektuen alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak hobetzeko, eta landa-inguruneen gazteen eta/edo nekazaritzan zein abeltzaintzan dihardutenen zerbitzuak garatzeko bi alor horietan.

PROGRAMAREN XEHETASUNAK

- Ekimen bakoitzari **1.700 bat euroko dirulaguntza** ematen dio proiektuak, eta **laguntza teknikoa** —noiznahi— hura formulatzeko eta haren jarraipena eta itxiera egiteko.
- Hauentzat dira laguntzak: **18-29 urte** bitarteko gazteen taldeentzat (5 lagunekoak, gutxienez), betiere **landa-ingurunean bizi** badira eta **herrialdean abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiatagiren bat** badute.
- Inpaktua: Lehenbiziko ekitaldian (2019koan), **22 proiektu** berritzaile finantzatu zituen programak **herrialde osoan**.

ELKARRIZKETA

Jarraian duzue agintari hauei egindako elkarrizketa:

- Elisa Rodríguez, Uruguako Gazteriaren Topagunea, Landa-ingurunearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusia (Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa).
- Virginia Porto, Uruguako Gazteriaren Alterna Topagunea (Gazteriaren Institutua).

Elementu aipagarriak

- Erakundeak, ikaskuntzaren bultzatzaile: berria da landa-inguruneen gazteriekiko lana (2010ean hasi zen), eta hasieran hezkuntza jorratzen zen gehienbat, nekazaritzako institutuen bitartez. Beraz, interesgarria eta gauza berria da programa hezkuntza-alorrak ez sustatzea, baizik eta Landa-ingurunea Garatzeko Zuzendaritzak. Erakundeek bultzatzen dute ikaskuntza- eta egokitze-prozesua.
- Laguntza finantzarioa ematen zaie gazteei, batez ere eginkizun produktiboetarako. Itzuli behar ez diren funtsak dira. Lurra eskuratzeko laguntzak ere ematen dira.
- Erakundeen partaidetza sustatzeko, partaidetza-eremu misto batean (publiko-pribatua) antolatzen dira prozesu horiek, non gizarte zibileko erakundeek eta gazte-taldeek hartzen baitute parte. Talde guztiak ez dira formalki antolatuak izaten.

Elkarrizketaren emaitzak

Elementu aipagarriak:

- Sektore eta erakunde arteko ikuspegia, funtsezkoa landa-inguruneko gazteriaren arazoei ekiteko. Kolonizazio Institutuak ere bat egin zuen programarekin. Aspaldikoa da lurra eskuratzeko gazteen eskaera. Izan ere, gazteek ezin dute eraiki epe ertain edo luzeko bizi-proiekturik. Horregatik, aldatu egin behar dira lurra eskuratzeko politikak.
- Hautsi egin behar dira estereotipoak, eta gazteek zer dioten entzun. 2013an egin zen landa-inguruneko gazteei buruzko lehenbiziko diagnostikoa, zeinak aldarazi egin baitzuen erakundeen ikuspegia. Gazteriari buruz baino gehiago «gazteriei» buruz hitz egin behar, handia baita aniztasuna. Gazteek zer dioten entzun behar da, etengabe berritu, eskema aldatu..., baina erakundeak ez dira beti egoten horretarako prestatuta. Arrisku gisa ikusten dituzte gazteak, zeinek —adibidez— ez baitaukate krediturik eskuratzeko aukerarik. Trebatu eta sentsibilizatu egin behar dira erakundeak: Zer da gazte izatea?
- Hona ahulezia nabarmenetako bat: urterik urte berritzen dira ekintzak; hori dela eta, oraingoz ez dago ziurtatuta haien iraunkortasuna. Jada ez da existitzen «Bertakoak gara» proiektua (aurreko kudeatzaileei zegokien). Partaidetza-eremu garrantzitsu bat dago gaur egun.

Zaila da inpaktuak nabarmentzea, iraupen laburra baitute neurri horietatik gehienek.

Europar Batasuna – NPBa



Sarrera

Testuingurua

Europar Batasuneko 74 milioi herritar dira 15 eta 29 urte bitartekoak. Bestalde, hirietan bizi da EBko biztanleriaren % 40,2; % 32, bitarteko eremuetan, eta % 27,8 bakarrik landa-inguruneak deritzenetan.

% 10
nekazari gazteak

Sektoreko % 10 besterik ez dira Europar Batasuneko nekazari gazteak.

% 24,78
nekazaritzarako lurra

Nekazaritzarako lurra (erein daitekeena), berriz, EBko lur-azalera osoaren % 24,7 da.

% 2,1
herrialdeko BPGa

2019an, BPGd-aren % 2,1 zen nekazaritzako jardueraren pisua Europar Batasunean, baina alde handiak zeuden herrialde batzuetatik beste batzuetara (Luxenburgon, % 0,23; Errumanian, % 4,12). Bestalde, EBko herrialdeetako lan-jarduera osoaren % 4,67 bereganatzen dute lehen sektoreko enpleguek.

138.000 M€
esportazioetan

2018an, EB izan zen nekazaritzako elikagaien mundu osoko esportatzaile nagusia: esportazio guztien % 7; dirutan, 138.000 milioi euro. Urte hartan, lehen sektoreko produktuen bigarren esportatzaile nagusia ere izan zen EB (116.000 milioi euro).

Nola laguntzen die EBk nekazari gazteei?

Europako landa-gazteei laguntzeko ekintzaren oinarria: finantzaketa, prestakuntza, belaunaldien arteko txandakatzea eta trukeak

Azterketa: EBko nekazaritzako elikagaien egoera

Inkestak, argitalpenak, ikerketak... egin dira nekazari gazteen beharrei buruz, eta sektorearen diagnostiko erreala egin da.

2023-2027: helburu Nagusia, «Belaunaldien arteko iraunkortasuna».

2023-2024 eperako NPBak ezarritako helburu nagusien artean daude nekazaritzako sektorearen egiturazko aldaketa eta gazteen zein langile kualifikatuen partaidetza handiagoa.

Nekazari gazteentzako laguntzak:

- Zuzeneko errentak nekazari gazteentzat: zuzeneko laguntzak 40 urtez beheko nekazariei.
- Landa-inguruneko gazteei laguntzeko EBko estatuek prestatutako politika eta programen finantzaketa: dirulaguntzak nekazari gazteen instalazioetarako, produktuak merkaturatzeko, inbertsioetarako...

Landa-inguruneko gazteei laguntzeko politikak

A) Landa-garapenerako NPB-FEADERen programak (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa)

WEBGUNEAK

https://ec.europa.eu/info/food-farming-fisheries/key-policies/common-agricultural-policy/rural-development_es

DESKRIBAPENA

EBko estatu bakoitzean jartzen dira martxan ekimenak, zeinak NPBak ere finantzatzeko baititu, bere helburu nagusiekin bat datozen eta. Estatu bakoitzak hautatzen du zer proiektu finantzatu, finantzaketaren zati bat FEADERi dagokion arren.

«Landa-garapenerako programen bidez (LGP) gauzatzen dute EBko herrialdeek FEADERen finantzaketa. Estatu bakoitzeko aurrekontuetatik ere jasotzen dute finantzaketa LGPek; nazio-zein eskualde-mailakoak izan daitezke aurrekontuak. Europako Batzordeak onartzen eta ikuskatzen ditu LGPak, baina nazio-zein eskualde-mailako erakundeek hartzen dituzte proiektuak hautatzeko eta ordainketak esleitzeko erabakiak».

Europako Batzordea

EMAITZAK/INPAKTUAK

- 2014-2020 epean, FEADER funtsen 8.297 milioi euro inbertitu dira Espainian, autonomia-erkidegoetako landa-garapenerako proiektu guztien artean. EAEn, 87 milioi euro jaso dituzte landa-garapenerako programek.
- 2015-2019 epean, landa-garapenerako 318 proiektu jarri ziren martxan EAEn, Eusko Jaurlaritzak FEADER funtsetatik jasotako laguntzei esker. 2018an, 458 LEADER proiektu aurkeztu ziren, zeinak FEADERek finantzatzeko baititu hein handi batean.

FEADERen bidez nekazari gazteei ematen zaizkien zenbait laguntza: Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa - Zenbait adibide praktikoa (Finlandian, Italian, Irlandan, Suedian, Estonian... garatzen dira FEADER proiektu horiek).

B) Erreserba Nazionalaren oinarritzako ordainketa-eskubideak (Nekazaritzako Europako Berme Funtsa)

WEBGUNEAK

<https://www.fega.gob.es/es>

DESKRIBAPENA

Europar Batasuneko nekazari gazteentzako dirulaguntza-mota berriak dira eskubide horiek, ekoizpenari loturi ez daudenak, eta lehengo laguntza-sistema (ordainketa bakarrekoa) ordeztzen dute.

Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten nekazari gazteei dirulaguntzak irizpide objektiboen arabera emateko estatuen erreserba bat dira. Batez ere jarduera hasi berri duten ekintzaile eta enpresentzat dira laguntzak.

LAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

- Ez edukitzea 40 urte baino gehiago Erreserba Nazionalaren oinarritzako ordainketa-eskubideen eskaera aurkezten den urtean. Gaztearen esku egotea, epe luzera, oinarritzako ordainketa-eskubideen esleipena eskatzen duen pertsona juridikoaren egiazko kontrola.
- Egiaztatzea landa-eremurako eskatzen den trebakuntza- eta gaikuntza-maila.
- Lehenbizikoz izatea nekazaritzako ustategi baten arduraduna, eta nekazaritzan jardun ez izana lehenbizikoz horretan hasi zen dataren aurreko bost kanpainetan.

EMAITZAK/INPAKTUAK

- 2015-2020 epean, Espainia osoko **22.000 bat nekazarik** jaso zituzten Europako Nekazaritzako Berme Funt sarearen errentak. Guztira, ia **107,2 milioi euro** banatu ziren epe horretan.
- 2020an, Oinarritzako Ordainketarako Erreserba Nazionaleko **17 milioi eurotik gora** banatu ziren 3.270 bat nekazariren artean, zeinetatik 2.700 inguru gazteak baitziren.

C) Cultiva programa (Espainia)

WEBGUNEAK

<https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/jovenes-rurales/visitas-formativas/default.aspx>

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Espainiako Gobernua (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa), nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreko zenbait erakunde laguntzaile direla. EBk lagundutako finantzatzea.

IRAUPENA/INDARRALDIA

Bigarren ekitaldia du aurtengoa. Proiektu pilotua, 2020an egina. 5 eta 14 egun bitarteko egonaldiak.

HELBURUA

Trebakuntza eta ezagutza praktikoa eskaintzea Espainiako gazte nekazariei, eta haien prestakuntza-beharrak asetzea.

DESKRIPAPENA

Hona nekazari gazteentzako programa horren helburua: trebakuntza praktikoa eskaintzea nekazariei eta abeltzainei, harrerako ustiategi pilotuetan, prestakuntza-egonaldien bidez, ezagutza teknikoak eta kudeaketari buruzkoak jaso eta nekazaritzako euren jardueretan aplikatu ditzaten.

PROGRAMAREN EDUKIA

Gai hauek jorratzen dira, besteak beste:

- Mekanizazioa eta teknologien erabilera ekoizpen-prozesuetan.
- Ura: zentzuz erabiltzeko teknikak eta teknologiak.
- Laborantzaren eta luraren erabilera; nekazaritza eta ongarritze-teknikak.
- Landareen osasuna.
- Abereen osasuna, elikadura eta ongizatea.
- Bertako arrazak berreskuratzea eta haztea.
- Teknologia digitalak erabiltzea.
- Ingurumen-irizpideak eta jardunbide jasangarriak txertatzea.
- Ekoizpen ekologiko eta integratuko jardunbideak eta metodoak.
- Azpiproduktuak eta hondakinak kudeatzea.

D) Nekazari gazteentzako truke-programak

WEBGUNEAK

https://enrd.ec.europa.eu/thematic-work/generational-renewal/exchange-schemes-young-farmers_es

ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

ERASMUS + ; Agro ecology ; Access to land.

IRAUPENA/INDARRALDIA

2015etik antolatzen da programa, eta asko aldatzen da batzuen eta besteen iraupena: programa batzuek sei hilabete irauten dute; beste batzuek, egun gutxi.

HELBURUA

Nekazaritzako gazteen artean ezagutza eta esperientzien trukea sustatzea.

DESKRIBAPENA

Nekazari gazteentzako truke-programa ugari daude EBko herrialde guztietan, eta EBkoak ez diren gazteek ere har dezakete parte. EBk berak finantzatzen du programen zati bat.

2015ean, EBko nekazari gazteen beharrei buruzko azterketa bat egiteko agindu zuen Europako Batzordeak, eta identifikatzeko eta deskribatzeko trukerako zer aukera dauden Batasuneko estatuetan. Positibotzat eta trebakuntzarako tresna egokitzen jo zituen azterketak truke-esperientziak.

NEKAZARI GAZTEENTZAKO EBN DAUDEN TRUKE-PROGRAMAK

https://enrd.ec.europa.eu/sites/default/files/exchange-schemes-young-farmers_eu-wide.pdf

ECORYSEN AZTERKETA EUOPAKO BATZORDEARENTZAT

Proiektu pilotua: Nekazari gazteentzako truke-programak.

HERRIALDEA	IKUSPEGIA	ERAKUNDEA/ENTITATEA	PROGRAMAREN/EKIMENAREN IZENA	LAGUNTZA-MOTA
Australia	TREBAKUNTZA	Gales Berria Estatuko Gobernua Eskualde-gobernua	Young Farmer Business Program	Enpresa-kudeaketari buruzko prestakuntza teknikoa, coaching-zerbitzuak
	FINANTZAKETA	Australiako Gobernua Nekazaritza Ministerioa	Science and Innovation Awards for Young People in Agriculture, Fisheries and Forestry	Ekintzaileentzako laguntza ekonomikoak
	TREBAKUNTZA	Victoria Estatuko Gobernua Eskualde-gobernua	Upskill and Invest Scholarship Young Farmers Scholarship	Prestakuntza-gastuetarako laguntza ekonomikoak
	TREBAKUNTZA	Victoria Estatuko Gobernua Eskualde-gobernua	Young farmer and new entrant mentoring program 2022	Prestakuntza praktikoa
	TREBAKUNTZA	Victoria Estatuko Gobernua Eskualde-gobernua	Negozioei buruzko entrenamendu-kanpamentuak nekazari gazteentzat	Prestakuntza praktikoa, enpresa- eta merkataritza-jarduerara bideratua
Kanada	FINANTZAKETA	Kanadako Gobernu Federala Nekazaritza Saila	Youth Employment and Skills Program – Gazteentzako Enplegu eta Trebakuntza Programa	Enpresa kontratatzaileentzako laguntza ekonomikoak
	FINANTZAKETA TREBAKUNTZA	Kanadako Gobernu Federala Nekazaritza Saila	AgriDiversity Program – Agroaniztasuna programa	Hezkuntza-proiektuetarako laguntza ekonomikoak
	LAGUNTZA INSTITUZIONALA	Kanadako Gobernu Federala Nekazaritza Saila	The Canadian Agricultural Youth Council – Kanadako Nekazari Gazteen Kontseilua	Aholkularitzako eta ordezkaritza organo aholku-emailea
	TREBAKUNTZA	Manitoba Estatuko Gobernua Eskualde-gobernua	Agriculture in Classrooms – Nekazaritza ikasgeletan	Nekazaritzaren inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza
Txile	FINANTZAKETA	Txileko Gobernua Nekazaritza Ministerioa	Txileko Landa-inguruneke Gazteentzako Kredituak Finantzatzeko Programa («Nekazari Gazte eta Ekintzaile Programa»)	Kapital-gastuak finantzatzeko kredituak
	LAGUNTZA INSTITUZIONALA	Txileko Gobernua Nekazaritza Ministerioa	Landa-inguruneke gazteen mahaia	Elkarguneak eta tokiko zein eskualdeko ordezkaritza
	TREBAKUNTZA	Txileko Gobernua Nekazaritza Ministerioa eta Hezkuntza Ministerioa	Landa Inguruneke Mintegia: Beka Programa	Truke akademikoa: prestakuntza teoriko-praktikoa atzerrian
	TREBAKUNTZA	Txileko Gobernua Nekazaritza Ministerioa	Online trebatzeko Txileko nekazaritza-eskola	Prestakuntza teorikoa online
Uruguai	FINANTZAKETA	Uruguaiako Gobernua Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Ministerioa	«Bertakoak gara» programa	Ekintzailetzarako laguntza ekonomikoak, laguntza teknikoak
	EMANTZIPAZIOA	Uruguaiako Gobernua Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Ministerioa eta Gizarte Garapenerako Ministerioa	«Gazteen Lurra» programa	Lur-zuzkidura, laguntza teknikoa, produkzio-baliabideak
	TREBAKUNTZA	Uruguaiako Gobernua Hezkuntza Publikoaren Administrazio Nazionala	Landa-inguruneke lizeoak eta ikastetxe integratuak	Hezkuntzarako sarbidea ematea landa-inguruneetan
	FINANTZAKETA	Uruguaiako Gobernua Nekazaritza Ministerioko Landa-ingurunearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusia	Kandela programa	Laguntza ekonomiko zuzena, laguntza teknikoa
NPB	FINANTZAKETA	EB (NPB) – Estatu kideak	Landa-garapenerako NPB-FEADERen programak	Proiektuak elkarrekin finantzatzea estatu kideetan
	FINANTZAKETA	EB (NPB) – Estatu kideak	Erreserba Nazionalaren oinarritzko ordainketa-eskubideak	Oinarritzko Ordainketa Eskubideak
	TREBAKUNTZA	EB (NPB) – Estatu kideak	Cultiva programa	Prestakuntza praktikoa, prestakuntza-egonaldiak etxaldeetan
	TREBAKUNTZA	EB, Agro Ecology , Acces to land	Nekazari gazteentzako truke-programak	Prestakuntza praktikoa, truke akademikoak

Gomendioak: Nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen etorkizunerako gakoak 2030



Honako hauek dira azterlanak identifikatutako erronketako batzuk: errentagarritasuna handitzea, etengabeko eta kalitatezko prestakuntza, eta sektorearen ekarpen positiboa nabarmentzea

Cándido Iturriaga-María Dañobeitia Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak PROSPEKTIKERi agindu zioten, 2018an, «Euskadiko nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen etorkizuna» izenburuko azterketa. Hauek ziren azterketaren helburuak: Euskadiko nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen diagnostikoa egitea; konponbideak proposatzea sektore horietarako, eta eztabaida zabala sustatzea, non Euskadiko nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreetako eragile nagusiek hartu behar bailukete parte, diagnostikoa eta konponbide-proposamena aberastearren.

Lau ataletan dago sailkatuta ikerketaren edukia: sektorearen diagnostikoa, joeren azterketa, nekazaritzako enpresen jardunbide egokiak eta AMIA azterketa, eta, azkenik, nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen etorkizunerako gomendio nagusiak (2030), proiektua egin duen aholkulari-taldeak proposatzen dituztenak.

Bai azterketari bai gomendioei dagokienez, inplizituki eta esplizituki txertatu du ikerketak «landa-inguruneko gazteria» kontzeptua. Hona hemen azterketaren gomendio nagusiak.

Erronka nagusi bat eta bigarren mailako hiru identifikatzen ditu Euskadiko nekazaritzako elikagaien eta basogintza-zurgintzaren sektoreen etorkizuna azterketak, Euskadiko landa-inguruneko gazteriari buruzkoak hirurak ere:

- Ustategien **errentagarritasuna areagotzea** da sektorearen erronka nagusia, haren lehiakortasuna ez ezik nekazarien bizi-kalitatea ere hobetu egingo baitu, azterketak dioenez. Hartara, erakargarriagoa izango zaie sektorea **gazteei**, eta bermatuko egingo da belaunaldi-erreleboa.
- Bigarren mailako erronkei dagokienez, hau aipatzen da, besteak beste: **etengabeko, kalitateko** eta premia berrietara egokitutako **trebakuntzaren beharra**.
- Hona bigarren mailako beste erronka bat: **ikusgai jartzea sektoreak gizarteari egiten dion ekarpen positiboa**. Izan ere, bertako produktuak, jasagarriak eta kalitatekoak ekoizten ditu eta, gainera, ingurumenaren aldeko lan itzela egiten du, ekosistemak zaintzen baititu.
- Azkenik, **sektoreko eragileen arteko lankidetza sustatzea** da identifikatutako bigarren mailako hirugarren erronka. Honenbestez, lehentasuna eman behar zaio **kooperatibismoari** sektore horretan, zeharkako lankidetza-mota gisa.

Landa-inguruneko gazteriaz solasean funtsezko zenbait eragilerekin (elkarriketak)



Hona landa-inguruneko gazteriaz funtsezko zenbait eragileri egindako elkarrizketetatik ateratako ondorio nagusiak, labur azalduta. 2021eko azaroan, zenbait elkarrizketa egin ziren, landa-inguruneko gazteentzako politika publikoen azterketa konparatiboaren ondorioekin kontrastatzeko (ikus azterketa honen aurreko kapitulua) eta sektoreko bertako eragileen iritziak jasotzeko.

Hauek dira elkarrizketatuak: Xabier Iraola, ENBA (Gipuzkoa); Oneka Zaballa, Landa XXI / ENBA (Bizkaia); Javi Torre, UAGA; Unzalu Salterain, EHNE (Bizkaia); Nagore Kortajarena, EHNE (Gipuzkoa).

Elkarrizketa horien ondorioak, berriz, Lorrako zuzendari kudeatzaile eta Munduko Landaguneko Martin Uriartek aztertu ditu.

Balorazio orokorrak

Nekazaritzan lan egiten duten pertsonen ekarpena aitortu behar da, elikatze-kate osorako bidezko prezioa bermatuz



- **Kezka handia dago** gizartean EAEko nekazaritza-sektorearen zahartzea, erreleborik eza eta aktibo-galera dela eta. Sektorerearen etorkizuna bermatzeko, hiru elementu horiei eman behar zaiela lehentasuna uste dute elkarrizketatuek.
- **Aitortu egin behar da nekazaritzan diharduten gizon-emakumeen balioa.** Kontsumitzaileek, berriz, produktua balioetsi behar dute, eta hura ekoizteko egin den esfortzua kontuan hartu.
- Funtsezko elementutzat jotzen da elikagai-kateko maila guztiei **bidezko prezioak** eta irabazi-marjinak bermatzea. Zenbait estrategia erabil daitezke sektorea hobetzeko, eta kasu guztietan ez da ezinbestekoa ustategiak handitzea familia-nekazaritzaren alde egiteko.
- **Euskadin industria hain hurbil dagoenez, nekazaritzako ustategien ikuspegi mistoa** garatu da azken hamarkada hauetan; hori dela eta, lanaldi partzialean aritzen dira familia-nekazaritzako Euskadiko baserritar asko. Euskadin ez ezik, Espainiako Estatuan eta Europan ere oso hedatua dago joera hori. Geroz eta jende gutxiago dago prest ustategiek eskatzen duten etengabeko ekinean jarduteko. Kontuan izan behar dira, beraz, «**baserritar mistoak**», haien esku baitago lurraldearen zati handi baten kudeaketa.
- **Azterketan aipatzen diren politika guztiak beharrezkotzat jo dira** (sektorea ikusgai jartzea, gizartearen aitortza, finantzaketa,

trebakuntza...), eta elkarri estu lotuak daude denak.

- Norbanakoen aldeko ekimenez landa, **talde-lana** ere sustatu behar da, ia ezinezkoa baita pertsona bakarra arduratzea ustiategi batez. Beraz, egitura juridiko kolektiboak bultzatu behar dira (kooperatibak eta antzekoak).

Ikusgaitasuna eta ospea

Nekazaritza-jarduerak ez du prestigiorik ez erakarpenik, baina ingurumenaren zainketan eta lurraldearen egituraketan duen garrantzia dela medio, ikusgarritasun eta balio handiagoa izan behar ditu. Horregatik, sektoreko eragileek ilusioa sortzearen aldeko apustua egiten dute, eta sektorea jarduera ekonomiko baten eta bizi-kalitate on baten hornitzaile dela erakutsi nahi dute



- Nekazarien eta abeltzainen lanak ez duela izan ospe handirik iritzi diote elkarriketatuek. Etorkizunean, ordea, oso jarduera esanguratsua izan omen daiteke, ingurumenarekin eta lurraldearen antolaerarekin duen loturagatik. Klima-aldaketaen aurkako «ekintzaile» deitu zaie nekazariei; zehazki, Euskadiko Familia Nekazaritzaren Batzordeak bultzatu eta Eusko Jaurlaritzak garatu duen sentsibilizazio-kanpainan.
- Ospeari dagokionez, berriz, badira prestigioa eta errentagarritasuna duten azpisektoreak (txakolina, ekoizpen ekologikoa, fruta-berotegiak, kiwi-ekoizpena...), non gazte dezentek hartzen baitute parte, eta prestigio eskasagoa dutenak (esnetarako behiak...).
- Produktua eraldatzeak ere (gazta, jogurta...) ikusgai bihurtzen ditu ekoizleak, eta ospea ematen die.
- Ez da balioesten nekazaritzako eskulana, eta jende askok aisialdiko jarduera gisa ikusten du.
- Eragileek, berriz, ilusioa sortu nahi dute, jendea motibatu, nekazaritza balioetsi eta haren onurak ezagutarazi, betiere

oinak lurrean dituztela, eta sektore horrek sortzen dituen aukerak ikusgai jarri. Baina ez dute sektorea idealizatu nahi, baizik eta diru-sarrera bat eta bizi-kalitatea bermatzen dituen jarduera ekonomiko gisara aurkeztu. Automatizaziora etengabe ari da egokitzen sektorea (lepoko elektronikoen bidez kontrolatzen dira behiak, gaztandegiak digitalizatzen ari dira...), eta eragin positiboa izan dezake horrek nekazarien lan- eta bizi-baldintzetan.

Errentagarritasuna

Ustategien errentagarritasuna handitzea izan behar dute xede politika publikoek, landa-garapena eta nekazaritza-sektorearen etorkizuna ziurtatzeko



- Ustategien errentagarritasuna bermatzea izan behar dute xede politika publikoek, funtsezko elementua baita landa-eremuaren garapenerako eta nekazaritzaren etorkizunerako.
- Elkarrizketatuen iritziz, lanean jarraitu behar da eskariaren arloan, hobetu egin behar da produktuen zikloaren eta balio-katearen gaineko ezagutza, eta abar.
- Aprobetxatu egin behar da «Farm to fork» europar esparrua, estrategia egokia baita.
- Egokia da, halaber, ekoizpena bereizteko eta balio erantsia sortzeko estrategia (esnekiak eta beste zenbait produktu). Jendeak asko estimatzen ditu produktu eraldatuak (jogurta, gazta), baina ez bitartekoa (esnea). Haragiari dagokionez, azken kontsumitzaileak ordaintzen duen prezioetik oso etekin txikia eskuratzen du ekoizleak.
- Munduko zenbait lekutan oso zabalduta dagoen beste politika

aipagarri bat: familia-nekazaritzako produktuen erosketa publikoa. Elkarrizketatuek proposatzen dute hemen ere horrelako irizpideak txertatzea, administrazio publikoek bertako produktuak eros ditzaten (0 km).

- Ugariak dira ustiategien banakako titularrak, baina ez du esan nahi horrek ustiategia titularrak bakarrik lantzen duenik: oro har, taldean egiten da lan, bai nekazaritzan, bai abeltzaintzan.
- Errentagarritasun potentzial handiagoa dute azpisektore batzuek; esate baterako, txakolinarenak, pandemiak kalte handia egin badio ere. Hona gazteentzat erakargarriak izan daitezkeen beste azpisektore batzuk: nekazaritza ekologikoa (betiere proiektuen kaudimen ekonomikoa bermatzen bada), berotegietako baratzezaintza eta frutagintza, eta kiwi-hazkuntza, zeinak lur gutxi behar baitu (abantaila handia gazteentzat, ia ezinezkoa baitzaie lurra eskuratzea).

Finantzaketa

Finantzaketari eta prestakuntzari buruzko politikak dira Euskadin gehien garatzen eta balioesten direnak. Ustiategiek laguntzen mendekotasun handia dute oraindik ere, eta laguntzak ustiategi-motara gehiago egokitu behar dira




- Finantzaketaren eta trebakuntzaren alorretakoak dira Euskadin gehien erabiltzen diren politikak (HAZI, Artzain Eskola...). Erreferentziako mekanismoak dira biak.
- Instalazioen finantzaketaren balorazio positiboa egin dute elkarrizketatuek, zeinen iritziz laguntzen zenbatekoak bat etorri behar baitu inbertsioaren mailarekin. Beste hau ere adierazi dute: ustiategi-mota bakoitzaren araberakoa izan behar du laguntzak.

- Instalazioetarako laguntzek ez dituzte estaltzen behar guztiak; hori dela eta, aurrekontua handitu egin behar da.
- Positiboa irizten diote leihatila bakar bat sortu izanari lehenbiziko instalazioetarako laguntzak kudeatzeko. Gaztenek arduratzen da laguntza horietaz, zeinak 30.000 eta 70.000 euro bitartekoak baitira. Elkarriketatuen ustez, lehenago ekin behar zaie laguntzak eskuratzeko eskatzen diren trebakuntzari eta prestakuntza-ibilbideei (baita instalazioa martxan jarri aurretik ere), eta jarduerak iraun bitartean indarrean eutsi behar zaie (etengabeko trebakuntza).
- Lehentasuna instalazio berriak egiteari ematen zaiola uste dute eragileek, baina instalazioen jabeen erreleboari ere eman behar zaiola garrantzia deritzote.
- Eragileen iritziz, **laguntzekiko mendekotasun handia** dute ustiategi gehienek, eta NPBak zer aldaketa erabakiko zain egoten dira. Hori dela eta, ziurgabetasun handiz begiratzen diote etorkizunari.

Trebakuntza

Beharrezkoa da prestakuntzari laguntza integrala ematea, oso ikuspegi praktikoarekin, eta beste erkidego eta herrialde batzuekin trukeak sustatzea



- Erakundeek **laguntza integrala** aldarrikatzen dute eragileek, esperientziak eta ezagutza partekatzeko ekosistema bat sortzeko, betiere bakoitzaren egoerara egokitua.
- Eskolen eta ikastetxeen partaidetza ere sustatu behar dela diote, bi bide hauetatik: bertako produktuak erosiz, eta landa-ingurunearekin eta bertako ekoizpenarekin lotura duten balioak

bultzatzeko hezkuntza-ekimenak martxan jarriz.

- Nekazaritza-eskoletako trebakuntza arautuari dagokionez, diote **ikasle gutxik ekiten diotela nekazaritzari ikasketak amaitzean**, eta haietako asko lorezain edo basozain egiten direla. Beraz, eskola horien egitekoa aztertu egin behar dela diote, nekazaritzaren sektorean enplegua sortzen lagundu dezaten.
- Halaber, trebakuntzari ikuspegi praktikoa falta zaiola uste dute, eta Iparraldeko edo Kanadako herrialde batzuetako bidetik jo behar litzatekeela (egonaldi luzeagoak, ardura handiagoak...). Enpresen kudeaketari eta produktuen komertzializazioari buruzko prestakuntza ere areagotu behar dela diote eragileek.
- Gazteek ez omen diote nekazaritzari ekin nahi, besteak beste esnearen sektorea krisian dagoelako Aldiz, eskoletan masa kritikoa badagoela ikusten omen da, bai eta baserrian jarduteko gogoia ere zenbait gazteren artean, baina duen balioa eman behar omen zaio nekazaritzari, zeina ez baita lanbide duintzat hartzen gaur egun.
- Trebakuntzaren garrantzia azpimarratzen dute elkarrizketatuek: instalazioa martxan jarri aurretik edo haren lehenbiziko urteetan ez ezik, nekazariaren bizitza aktibo osoan ere beharrezkoa da.
- Enpresa-jarduerari, marketinari eta abarri buruzko trebakuntza sendotu egin behar dela diote.

Jardunbide egokia: Artzai Eskola aipatu dute adibide egokitzaile, eta hortik jo behar dela adierazi, etengabeko trebakuntza sendotuz (adibidea: Esne Eskola).

- Bereziki azpimarratu dute eragileek ekosistema bat sortu behar dela **esperientziak eta ezagutza trukatzeko**.
- Diote, bestalde, finantzaketa behar dela lehen sektoreko eskoletarako ez ezik, honetarako ere: 1) bisitaldiak egiteko eta beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetako esperientziak ezagutzeko, eta 2) beste herrialde batzuetako ustategietan dauden gazteen trebakuntza praktikorako. Horren adibidetzat jarri dituzte nekazaritza-eskoletako ikasleentzako Erasmus+ funtsak. Bai sindikatuek, bai azterketa honek zenbait ekimen esanguratsu identifikatu dituzte, eta harremanak dituzte beste eragile batzuekin. Ezagutzak, praktikak eta ikasketak ez ezik (teknologia-atzemateak, maneiatze-sistema berriak, ekoizpen-teknikak, komertzializazio-arloko joerak, enpresa-jarduera eta abar), lider berriak ere sortzen dituzte bisitaldiek, eta nekazarien arteko loturak eta sareak eraikitzen, guztiak ere lagungarriak sektorea egituratzeko.
- Ondo aztertu behar dira truke-bidaia, azpisektoreen interesak uztartu eta eskala-mugak gainditzeko.

Erreleboaren alde

Kezka handia dago
ustiategien erreleboan
dagoen arazo larriagatik,
eta funtsezkoa da erreleboa
finantzatzeko laguntzak eta
transferentzia planifikatzeko
programak



- **Kezka handia** sortzen du sektorean **belaunaldien arteko erreleborik ezak**. Euskadiko nekazarien batez besteko adina 60 urte da, eta urterik urte ari da jaisten haien kopurua. Sektore osoak pairatzen ditu horren ondorioak, eta kooperatiben bazkide-kopuruan ere nabari da. Hori dela eta, gerta daiteke kooperatibak euren kabuz ekoizten hastea, merkatuaren eskaria asetzeko (hala ari da gertatzen dagoeneko). Familia-nekazaritza arriskuan jar dezake joera horrek.
- Belaunaldien erreleborako laguntzen balorazio positiboa egiten dute elkarriketatuek. Bikoitza da horri buruzko ikuspegia: neurriak hartu behar dira jarduera utzi nahi dutenei laguntzeko (pentsioen zenbatekoa igo, aurre-erretiroak berriro ezarri...) eta nekazaritzari ekin nahi dioten gazteei bidea errazteko.
- «**Errelebo-kontratuko**» esperientzien balorazio positiboa egin dute eragileek. Kezka-iturri da, bestalde, baserria bizileku eta aldi berean ustiategi izatea. Baserri bat salgai jartzen duenak dena batera eskaintzen du: lurra, etxebizitza, ustiatagia... Hori dela eta, zaila izaten da jabetza beste norbaiten esku uztea, batez ere pertsona hori ez bada senidea edo hurbilekoa.
- **Nola planifikatu baserriaren eskualdatzea**. Erretiroa gauzatu aurretik hasi behar litzateke baserriaren eskualdatzea prestatzen, jabeak 55 bat urte dituela. Bereziki zaila izaten da prozesu hori ustiategi batzuetan, batez ere esnea ekoizten dutenetan. Lehendik dauden instalazioak aprobetxatu egin behar dira, baina errelebo-prozesuak hobetuz.

- Gazteei eta erreleboari dagokienez, berriz, ikuspegi integrala behar da, eta instalatze-prozesuei eman lehentasun estrategikoa.
- Laguntza handiagoa behar da familia-ingurunetik kanpo egiten diren ustiatzeen eskualdaketetarako. NPBak ez du jasotzen hori; beraz, tokian tokiko erakunde eskudunek bultzatu behar dute. Nekazaritzari buruzko trebakuntzarako eta enpresa-kudeaketarako behar da laguntza.
- Hutsik geratzen diren baserriei beste erabilera batzuk ematearen garrantzia azpimarratu dute elkarrizketatuek, gazteen emantzipaziorako lagungarri izan omen daitezke eta.

Lurraldea eta eragileen esku-hartzea

Azpimarratu dute nahitaezkoa dela eremu bakoitzaren premiak eta testuingurua aintzat hartzea, aktoreen arteko koordinazioa, parte-hartze eta elkarrizketa hobea sustatzea, eta gazteen aldeko giroa sortzea



- Lurraldea lehenesten duen ikuspegia berenganatu behar dute eragileek, edo eskualde bakoitzeko beharretara egokitua. Sektore eta lurralde bakoitzaren diagnostikoa egin behar da. Kaiku enpresak, esate baterako, honi buruzko diagnostiko bat behar du: zertan diren esne-ustiatzeak belaunaldien arteko erreleboari dagokionez.
- Lurraldeen arteko orekari eustearren, ustiatzeiek egoera okerreana non pairatzen duten identifikatzea proposatzen dute elkarrizketatuek.
- Beste proposamen bat: Artzai Eskolek herri-basoak erabiltzea trebakuntza-lanetarako.
- Eragileek, berriz, esku-hartze handiagoa izan behar omen

lukete politika publikoen antolakuntzan. Elkarrizketatu batzuen ustez, solaskidetza hobea behar da, eta dinamika berriak erakundeen eta nekazaritzako eragileen artean. Sektoreko eragileen eta erakundeen arteko koordinazioa bermatu beharra dagoela diote, eta Lanbide jarri dute adibide gisa.

- Diote, bestalde, giro egokia sortu behar dela gazteen artean, eta nekazaritzako sindikatuak badutela zer eginga alor horretan, betiere gazteen profiletara egokituz eta jarduera espezifikoa eta malguak eskainiz.
- Halaber—diote—, areagotu egin behar da gazteen partaidetza nekazaritzako sindikatuetan. Sindikatuak gazteentzat ere garrantzizkoak direla azaldu behar dela diote elkarrizketatuek.

Gazteak eta teknologia berrien erabilera nekazaritzan

Pixkanaka teknologia berriak sartzen ari dira nekazaritza-ekoizpenean. Ustiategi bakoitzari egokitutako teknologietan prestatzea eta inbertitzea garrantzitsuak izango dira etorkizunerako




- Nahiko ona da teknologia berrien erabilera-maila (ordenagailuak, smartphoneak, sare sozialak eta abar), baita administrazioarekiko harremanetan ere (TicketBai, izapide administratiboak...). Zenbait mugak eta COVID-19aren pandemiak areagotu egin dute joera hori; honenbestez, profesionalek gehiago erabiltzen dute teknologia, baita administrazioarekiko harremanetan ere.
- Pixkanaka, nekazaritzako ekoizpenera ere ari da hedatzen teknologia (GPSdun traktoreak, doitasun-nekazaritza...), nahiz eta ustiategi batetik bestera egoera oso desberdina izan.
- Oro har, gazteek ez diote beldurrik teknologiari, eta berehala

egokitzen dira. Gazte askorentzat, ezinbestekoa ere bada (onlineko salmenta, kontsumo-taldeak...). Arazoa: sektorea zaharkiturik dagoela, eta adineko jendeari zailagoa zaiola teknologia berriak erabiltzea. Teknologian baliabide gehiago inbertitu behar dela diote elkarrizketatuek, eta eremu batzuetan konektibitatea hobetu egin behar dela, oraindik ere arazoak omen daude eta.

- Teknologia horiei buruzko trebakuntza eskaini behar da, eta ustiategi bakoitzaren egoerara egokitutako inbertsioak egin, alferrikako inbertsio handiak saihestuz.

Ondorioak



Erakundeen babes, ikusgarritasuna eta ordezkaritza

Politika publiko gehienak finantzaketa eta prestakuntza bultzatzeko diren arren, hainbat proiektu daude laguntza instituzionalera, ikusgarritasunera eta kolektiboaren ordezkaritzara bideratuta.

Zahartzea, despopulazioa eta abandonua

Politika horiek sortzeko arrazoiak bat datoz sektorearen zahartze bizkorrekin, landa-eremuen despopulazioarekin eta abandonuarekin, hurrengo hamarkadetan presio demografikoak gora egingo duen aurreikuspenarekin edo pandemian sektoreak bizi duen egoera zailarekin.

Trebetasun praktikoak garatzea

Prestakuntza- edo hezkuntza-ikuspegia duten proiektuen ardatza ikaskuntza eta trebetasun praktikoaren garapena sustatzea da.

Lan-mundurako jautzia

Lan-mundurako jautzia sustatzen da, errentagarritasuna, ekintzailatza, enpresa-kudeaketa eta negozio-garapena bultzatuz.

Praktika jasangarriak saritzea

Zenbait politikek ingurumen-irizpideak eta -eskakizunak barneratzen dituzte, eta praktika jasangarriak sustatzen eta saritzen dituzte.

Ulertzea eta egokitzea

Jendeak zer behar dituen ulertzea eta horietara egokitzea funtsezkoa izango da politika iraunkorrak ezartzeko orduan.

Prestakuntza, laguntza finantzarioa eta instituzionala dira landa-eremuko gazteen inguruan garatzen diren politika publikoen ardatz nagusiak

Finantzaketan eta trebakuntzan laguntzea dute helburu aztertutako herrialdeetako nekazari gazteentzako politika publiko gehienek. Badira, halaber, **sektoreari laguntza instituzionala emateko eta ikusgai jartzeko** zenbait proiektu; neurri txikiagoan, berriz, badaude gazteei lurra eskuratzen eta **emantzipatzen** laguntzeko politikak ere.

Aipatutako herrialdeetako nekazaritzako ministerioek eta sailek sustatzen eta aplikatzen dituzte **proiektu** gehienak, hau da, **administrazio zentralaren mendekoak dira, Australian izan ezik**. Herrialde horretan, **eskualdeetako organismo publikoek antolatzen dituzte proiektu gehienak**, herrialdea osatzen duten estatuetako nekazaritza-sailen bitartez.

Berriak dira aztertutako politika gehienak —hamar urtetik beherakoak—, eta badira **jada amaitu diren edo jarraipenik izan ez duten zenbait proiektu pilotu** ere. Normalean, urtero egin ohi da programa horietarako deialdia.

Arazoi berberak direla medio bultzatu dira politika horietako asko azken urteotan: **sektorearen zahartze geroz eta azkarragoa, landa-ingurunearen biztanleria-galera, datozen hamarkadetan gerta daitekeen presio demografikoaren hazkundea, pandemia-garaian sektoreak jasan duen egoera zaila...**

Trebakuntza edo hezkuntza ardatz duten proiektu gehienek **trebetasun praktikoak irakastea eta garatzea** dute helburu, ezagutza teorikoak ematea baino gehiago. Horren adibide ditugu truke

akademikoak, aholkularitza-programak eta kontrataziorako enpresei ematen zaizkien laguntzak. Bistakoa da, beraz, **aztertutako politikek eta programek hau lehenesten dutela: gazteak lanbideratzea, eta nekazari gazteen errentagarritasuna eta ekintzailtza ziurtatzea.** Bai programa praktikoei bai teorikoei bultzatzen dute **enpresa-kudeaketari eta negozio-garapenari buruzko ezagutza.**

Finantzaketari dagokionez, batez ere **ekintzailtza bultzatzen dute aztertutako politikek, dirulaguntzen, kredituen eta beken bitartez.** Aldiz, **apenas aurkitu den programarik sektoreko enpresei laguntzarik ematen dienik gazteak kontratatzeko.**

Nekazari gazteen artean **ekintzailtza sustatzeaz gain, politiketako batzuek ingurumen-irizpideak eta -betekizunak ere badituzte, eta lehen sektorean jardunbide jasangarriak, berrikuntza eta nekazaritza-teknika zein teknologia berriak bultzatzen.**

Elkarrizketatutako eragileen ikuspegiak (nazioartea)

Ikerketaren lehenbiziko atalean aztertutako politikak bultzatzen dituzten gobernuetako funtsezko zenbait eragilerekin Munduko Landaguneak izandako elkarrizketen bidez, Kanadako, Txileko eta Uruguako erkide dituzten erronka batzuk identifikatu dira. Ikerketan ageri diren politikak aplikatzen dihardute eragile horiek, eta oso lagungarria iritzi zaio sektoreko zailtasunez eta indarguneez duten iritzari. Zehazki, hauekin elkarrizketatu dira:

- Elisa Rodríguez, Uruguako Gazteriaren Topagunea, Landa-ingurunearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusia (Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa).
- Virginia Porto, Uruguako Gazteriaren Alterna Topagunea (Gazteriaren Institutua), Gizarte Garapenerako Ministerioa.
- Andrea Riquelme, Gazteriaren Topagunea, Nekazaritza eta Abeltzaintza Garatzeko Institutuko arduradun nazionala (INDAP), Txileko Nekazaritza Ministerioa.
- Juan Guido Vidal Acuña, INDAP antolakuntza-unitatea, Familia Nekazaritzako Bilgune Espezializatuaren koordinatzailea izana, MERCOSUR (REAF - MERCOSUR), Txile.
- Rick Fiarchuk, Kanadako gobernuko Nekazaritzako Ministerio Federaleko programa-zuzendaria.

Nazioarteko eragileetako batzuekin izandako elkarrizketen arabera, hauek dira landa-eremuko gazteen aldeko politika publikoak jasangarriki aplikatzeko elementu nagusiak:

- **Publikoa ulertzea eta hari egokitzea:** publiko berezia dira gazteak; beraz, haiek ondo ezagutzen dituzten teknikariak

behar dituzte erakundeek (barne-gaikuntza).

- **Sektoreen arteko politikak sustatzea**, iraunkorrakoak eta sendoagoak izan daitezten.
- **Administrazio-aldaketak**: politika publikoak administrazio-aldaketen mende egon ohi dira. Eta landa-inguruneen gazteria duela gutxi instituzionalizatu denez, aurrea hartu behar zaie dinamika horiei, eragile eta talde politiko guztiekin lan eginez eta adostasunak bermatuz, jada martxan zeuden eta emaitza onak zituzten programak bertan behera gera ez daitezten.
- Funtsezkoa da **eragileen partaidetza eta adostasuna**, neurriak berenganatu, sendotu eta iraunaraz ditzaten.
- Politika publiko horiek egokiro funtzionatzeko, berriz, ezinbesteko faktoreak **dira programa horietarako aurrekontua eta erakunde espezifikoak**.

Elkarrizketatutako eragileen ikuspegiak (Euskadi)

Ezinbestekoa da sektorerako **estrategia integralak** garatzen jarraitzea, eragileen arteko **partaidetza eta koordinazioa** sustatzeko, **esperientziak** trukatzeko gune komunak sortzeko, eta **prestakuntzaren eta akonpainamenduaren** arteko **integrazioa** sustatzeko. **Modu positiboan balioetsiko dira errelebo irekiko programak eta laneratze-programak**

- **Estrategia integralei** jarraikiz garatu behar lirateke politika publikoak, **ikuspegi holistikoa** oinarri dutela, eragile esanguratsu guztien **partaidetza** sustatuz, **koordinazioa** eta **esperientziak** trukatzeko **eremu bateratuak** sortuz.
- **Trebakuntza eta laguntza ikuspegi praktikoa** erabiliz **uztartzearen** garrantzia ere azpimarratu zen, eta uztartze horri laguntzen dioten **ekosistemak** sortzeko premia. Nabarmendu zen, halaber, nekazari gazteei laguntzeko aholkularitza integralaren eta talde-lanaren premia. Trebakuntzari dagokionez, hau azpimarratu zen: **trebakuntza praktikoa** behar dela, enpresen kudeaketari buruzko prestakuntzarekin batera. Horrez gain, nabarmendu zen jarduera-epe osoan behar duela nekazariak **trebakuntza eta laguntza**, ez instalazioa martxan jartzean bakarrik.
- Bereziki nabarmendu da beste herrialde batzuetan eskura daitekeen **trebakuntza**, bide hauek erabiliz: 1) bisitaldiak eginez eta beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetako **esperientziak** ezagutuz, eta 2) beste herrialde batzuetan praktikak eginez.
- Belaunaldien arteko erreleboari dagokionez, positibotzat jo dira errelebo irekiko programak eta lanari ekitekoak, baina hori errazteko **mekanismo berriak** behar direla nabarmendu da, bai eta epe luzeragoko **ikuspegia** ere, landa-ingurunetik kanpoko jende ekintzailea erakartzearen.

Elkarrizketatutako eragileen proposamenak (Euskadi)

Elkarrizketatuen arabera, funtsezkoa da sektorearen ikusgaitasuna, ustiategien errentagarritasuna hobetzea eta teknologia berriak txertatzea landa-ingurunean lan egin eta bizitzeko aukera berriak sortu nahi badira

- Funtsezkoa da sektorearen ikusgaitasuna landa-ingurunean lan egin eta bizitzeko aukera berriak sortu nahi badira. Sektorea balioetsi eta prestigioa emateko ahalegin bereziak egitea proposatzen dute elkarrizketatuek.
- Azpimarratzekoak dira «Farm to fork» eta 0 km proposamenak.
- Funtsezkoa da, halaber, ustiategien errentagarritasuna: ezinbestekoa da produktuek bidezko prezioak izatea elikadura-kateko maila guztietan diharduten eragile guztientzat.
- Pixkanaka, ari dira sektorean teknologia berriak txertatzen; ezinbestekoa da, beraz, haiek egokiro erabiltzeko trebakuntza eskaintzea.
- Eragile guztiek ahalegindu behar dute **ilusioa sortzen**, eta behar diren **tresnak erabili** ilusio hori hezurmamitzeko.

Munduko Landagunea

Azterketa: landa-inguruneke gazteentzako politika publikoak

